



## **“EREDU EKONOMIKO ETA KOMERTZIAL BATEN ALDE, LAGUNEN ESKUBIDEAK ETA INGURUNEAREN BABESA LEHENETSI DITZAN”**

### **CECJ-KO ERAKUNDEEK ALDERDI POLITIKOEI ESKATZEN DIETEN NEURRIAK HAUTESKUNDE AUTONOMIKO ETA LOKALETARA AURKEZTEAGATIK**

#### **Sarrera**

Bidezko Merkataritza gizarte-mugimendu da, erakunde sozial eta lagun batzuek eratu dute, eta garapen iraunkorra zein justizia global handiago bat lortzea du helburu. Nazioarteko mugimendu dugu, eta 60ko hamarkadaren amaieran sortu zen. Gure estatuan duela 30 urte luzez geroztik dihardu lanean, lotura garrantzitsua dauka herritarrekin batera, eta elkarturik dago beste toki-mugimendu batzuekin.

Bidezko Merkataritza mugimenduak arduraz bilatzen du herritartasun kontzientziatu eta konprometitu bat sustatzea **gizarte- eta ingurune-justiziarekin** batera, baita **desberdintasun ekonomiko eta sozialak, pobrezia, haurren lan-esplotazioa edo klima-aldaketaren ondorioak** errotik ateratzeko politikak ere. Gainera, herritarrek **kontsumo erantzulearen** alde jokatu behar dute euren eskubideak eta kontsumitzen dituzten produktuak egiten diharduten lagunenak bermatzeko xedez.

Halaber, Bidezko Merkataritzak **politika komertzial zuzen eta iraunkorrak** bultzatzen ditu, beraren oinarri eta balioen arabera; besteak beste, **merkataritza-praktika zuzenak bulkatzea, ingurunea babestea, zuzen ordaintzea eta haurren lana edo gatibu lana kentzea**. Bidezko Merkataritza mugimendutik guk deritzogu urgentea dela politika publikoek **klima-aldaketa** kontuari eta haren ondorioei ekitea pertsonetan eta ingurunean, eta **neurri, arau eta legeen** alde egitea; izan ere, horiek hainbat gauza **zaindu, erregulatu eta zigortu behar dituzte: gehiegizko praktikak, pertsona eta baliabide naturalen esplotazioa, lan-egoera iraingarriak, diskriminazioa, gardentasun eta erantzukizun korporatiborik eza, genero desberdintasuna edo aukerarik eza lagun baztertuentzat**.

Herritarrak gero eta kontzientziatuago daude eta jakin badakite kontsumitzaileen eskubideetatik haratago dagoela gure produktuak egiten dituzten langileena. **Eskubideok bermatu beharra dago kontsumo erantzule batekin ez ezik gu herritar guztion aldetik, baita aldaketeekin ere legegintza-mailan**. Eta hori oro da Gobernuen erantzukizun: Gobernu lokal eta autonomikoak, estatuetakok, Europar Batasunekoak; bestalde, politika

publiko komertzialen eginkizun ere bada maila globalean, iraunkortasunaren alde jokatu behar baitute sendo pertsonak eta planeta gainezka esplotatzeko jarreraren aurrean.

### **Bidezko Merkataritza eta Garapen Iraunkorraren Helburuak.**

2015ean 193 gobernutako ordezkariak Garapen Iraunkorraren Helburuen agiria sinatu zuten Nazio Batuen egoitzan: 17 jomuga zehatz oparotasuna bermatzeko, pobrezia gainditzeko eta ingurunea babesteko. Helburuok bete behar dira 2030a baino lehenago. Bidezko Merkataritzak, bere hamar oinarrien bidez, modu erabakigarrian laguntzen dio Garapen Agenda berri horren aurrerapenari, eta berarekin batera partekatzen du xedea ez ezik, baita ikuspuntu integrala eta elkartasunak sortu beharra ere.

### **Bidezko Merkataritza hauteskunderen aurrean**

CECJk datozen hauteskundeetan parte hartzen duten alderdi politikoei eskatzen die euren programetan hainbat **neurri** sartu ditzatela, **beste eredu komertzial eta ekonomiko bat** sustatzen dutenak, **eta jarraibide horrek honako gauza hauek lehenetsi behar ditu: lan-egoera eta bizitza duinak lagun guztientzat, giza eskubideak, sozialak eta ekonomikoak bizitza esparru guztietan, baita garapen eredu iraunkor bat ere, hots, ingurunea errespetatu eta babesten duena klima-aldaketaren ondorioen aurrean.**

Lerro honetan, neurrien proposamen honekin batera kontzientzia sortu ere nahi dugu herritarretan **kontsumo eredu erantzule eta kritikoago** baten alde egiteko, hau da, Giza Eskubideak inola ere ez urratseko hornikuntzako kate osoan zehar zorigaitzez gertatzen den bezala (haurren lan-esplotazioa, lan-egoera krudelak,...), eta ingurune-eragina gutxiagotzeko.

*Horren guztiaren aurrean CECJkook zenbait neurri eskatzen dizkiegu hautagaiei eta datozen hauteskundeetan parte hartuko duten alderdi politikoei hainbat mailatan; neurriok laguntza emango lukete munduko injustizia eta pobrezia arintzeko, eta ingurunearen degradazioa saihesteko.*

## Neurriak aurrera egiteko justizia handiago baterantz ekonomia, gizarte eta ingurunearen aldetik

Lehenengoz, jarrera politiko argi bat onartzea eskatzen dugu giza eskubideak lehenesteko eta ingurunea babesteko interes komertzialen aurrean, eta mundu osoan hainbat balio sustatzeko, besteak beste, garapen iraunkorra, bidezko merkataritza etikoa, borroka ustelkeriaren aurka eta erantzukizun handiagoa hornikuntzako kateetan. Hori guztia gauzatzeko, funtsezkotzat jotzen ditugu hiru ardatzok:

### Ekonomia baten alde, lagunak eta ingurunea erdigunean jartzen dituenaren alde

Bidezko Merkataritza mugimenduaren aldetik uste dugu funtsezkoa dela ez bakarrik beste merkataritarik egon daitekeela demostratzen duten aukera komertzial zuzenak sustatzea, **baita injustiziak, desberdintasunak eta dauden baliabideen harrapakaritzak eusten dioten arkitektura** (erakundeak, arautegiak eta entitate pribatuak) **salatzea ere**. Horren harira, datozen hauteskunde lokal eta autonomikoen aurrean, alderdi politikoei konpromiso bat eskatzen diegu honako xede hauetarako:

- 1.- Udalbatzarrak edo autonomiak babes mozio bat aurkeztea Nazioarteko Hitzarmen Lotesle bati, eta akordio horrek enpresa transnazionalak behartuko ditu Giza Eskubideei eta ingurunekoei zor zaien errespetatua bermatzera hornikuntzako kate osoan.
2. Laguntza ematea legea aplikatzeko **nazioarteko mekanismo juridiko** baten garapenari, bide horrek ahalmen eraginkor eta lotesleak dituelarik giza eskubideak eta inguruneak babesteko asmoz enpresetan gertatu daitezkeen gehiegikerien aurrean.
- 3.- Eskaera egitea Parlamentuari eta Europako Kontseiluari Bolkestein Zuzentarauaren erreformarako negoziazioak geldiarazteko, berriztatze horrek berekin bailekarke herritarren nahiaren eta gure gaitasun esparruen narriadura larri bat kontsumo eta produkzioaren eredu zuzen eta solidarioago bat garatzeko gure hirietan.

### Ekonomia zuzenago baten alde

Bidezko Merkataritzan adibide bat daukagu produkzio eta kontsumo iraunkorreko eredu globalerako, eta hori adeitsua da pertsonekin eta planetarekin. Hainbat urte joan dira eredu martxan jarri zenez geroztik, baina hedatzeko ekintza politikoa behar dugu toki mailan, eta ekintza horrek konpromisoa hartu beharra dauka eredu komertzial humano eta iraunkorrago batekin; eredu hori elkarturik dago sektore pribatu eta gizarte zibilarekin, ekimenak bultzatuko ditu, giza eskubideak bermatzen eta produkzio iraunkorra uzten dihardutenak, eta pertsonak eta planeta errespetatuko:

- 4.- Estrategia bat garatzea Administrazio Lokala edota Autonomiakoa inplikatu nahian, 2020 Estrategia Europarra eta 2030 Agenda betetzeko xedez, helburu batzuetan bereziki; besteak beste, produkzio iraunkorra, kontsumo erantzulea, borroka pobrezia eta desberdintasunaren aurka, genero berdintasuna eta borroka klima-aldaketaren kontra.
- 5.- Herritarren partaidetza sartzeari aipatu Estrategian, lagun horiek benetako ahalmena dutelarik erabakiak hartzeko unean, produzitu eta kontsumitzeko beste era bat sustatze aldera, gizarte eta inguruneko balioak erantsiz.
6. Bidezko Merkataritzari eta kontsumo erantzuleari laguntzea udalerriri eta autonomiakoko politika-agendan tresna eraginkor gisa pobrezia aurka borrokatzeko. Bidezko Merkataritza sartzeari garapenerako kooperazio eta hezkuntza politikan, erakunde produzitzaileak sendotu eta Espainiako herritarren sentsibilizatzeko asmoz, Bidezko Merkataritzari eta kontsumo erantzuleari buruz.

7.- Ahaleginak egitea bidezko merkataritzako produktuak sartzeko udalerrri eta autonomiako administrazio publikoetan (kafetegi zerbitzuak, jatetxeak, *vending* makinak,...).

8.- Bidezko Merkataritzaren aldeko Hirien sareari atxikitzea; izan ere, sare internazionala da, milatik gora hirik eratua, eta haiek guztiek konpromisoa hartu dute kontsumo erantzule eta Bidezko Merkataritzarekin.

### **Herritartasun kontzientziatu eta solidario baten alde**

Herritarrak ezin izan daitezke mezuak jasotzeko agente hutsa; izan ere, bete-betean sartu behar dute arazo globalak konpontzeko jardueran, eta horretarako haxe da funtsezkoa gure ustez:

9. Herritarren ezaguera eta partaidetza bultzatzea EBri zuzenean eragiten dioten akordio komertzialei buruzko kontu guztietan.

10. **Ekonomi hezkuntza** sustatzea **zeharkako ikuspuntu kritiko batekin** maila guztietan, hezkuntza formalean eta ez formalean. Guneak sortzea herri-hezkuntzako metodologiak trukatzeko, eta beste gune batzuk ere komunikazioko kanpaina edo estrategiak trukatzeko.

a. Edukiak sartzea udaleko heziketa eskaintzan edo, haren lekuan, eskola-curriculum akademikoan, kontsumo erantzule eta Bidezko Merkataritzaren garrantziari dagozkion edukiak.

b. Kontsumo erantzulea eta Bidezko Merkataritza hedatzeko kanpainak garatzea komunikabide publikoen edota udalerrri edo autonomiako hedapen tresnen bidez (kartelak markesina eta hiri-altzarietan, udalerrri edo autonomiako webguneak, informazioko liburuxkak, etab.)

c. Lerro espezifiko bat bultzatzea Bidezko Merkataritza eta haren oinarri eta balioak hedatzeko udalerrri edo autonomiako PYMESen artean.